

IRAGARKIA, 2002ko abenduaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendurreko informaziopean jartzen da Hondarribiko udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Konbentu Aurre» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zenstroa (Mota: lur azpiko bakuna).

3084

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, Herri Lan eta Garraio Sailaren, otsailaren 13ko, 873/2003 Foru Aginduaren. Foru Agindu horren bidez «BI-2121 errepidea egokitze-ko proiektua, 25,100 k.g. eta 25,600 bitartean Errigoitiko udal mugartea» delakoak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea ebatzi da.

3085

ANUNCIO de 16 de diciembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 kV, tipo subterráneo sencillo, denominado «Konbentu Aurre» en el término municipal de Hondarribia.

3084

## DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

ANUNCIO de la Orden Foral n.º 873/2003, de 13 de febrero, del Departamento de Obras Públicas y Transportes, por la que se somete a información pública la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución del «Proyecto de acondicionamiento de la carretera BI-2121 entre el p.k. 25,100 y el p.k. 25,600. Término municipal de Errigoiti».

3085

# Xedapen Orokorrak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-1206

30/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa, Boluntarioitzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa.

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean du jatorria Boluntarioitzaren Euskal Kontseiluak, lege horretan jasotzen baita boluntarioitzaren inguruan biltzeko, konsultak egiteko eta aholkuak emateko organoa izango dela kontseilua.

Boluntarioitzaren egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokionez, gizartea aldatzea bermatuko duten politika publikoak prestatzen eta garrantzen laguntzea da, beti ere gauzak berritzeari begira eta beste gizarte eragile batzuekin batera.

ontsultarako eta bilgune izateko organoa sortzearekin lortu nahi da boluntarioitzaren sustatzeko Euskal Administrazio Publikoaren konpromisoa antolatzea, boluntarioen, horien antolaketaren eta Administrazioaren arteko harremana bermatzeko.

Helburu hori betetzeko, Boluntarioitzaren Euskal Kontseilua sortu zen ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 14. artikuluan, eta sortu ere, konsulta organo izateko. 15. eta 16. artikuluetan, bestalde, kontseiluaren egitekoak eta osaera ezarri ziren.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaz bat etorriz, interesatuta dau-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### Nº-1206

DECRETO 30/2003, de 18 de febrero, de funcionamiento del Consejo Vasco del Voluntariado.

El Consejo Vasco del Voluntariado tiene su origen en la Ley 17/1998 de 25 de junio, del Voluntariado, como un órgano de encuentro, asesoramiento y consulta en materia de voluntariado.

El papel del voluntariado, en lo que a la Administración Pública Vasca se refiere debe de ser la contribución, en clave de innovación y en colaboración con otros agentes sociales, al diseño y desarrollo de políticas públicas tendentes a garantizar el cambio social.

Con la creación de este órgano consultivo y de encuentro, se trata de articular el compromiso de la Administración Vasca de promover el voluntariado, garantizando la relación entre los voluntarios/as, su organización y la Administración.

Con este fin se crea en el artículo 14 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, el Consejo Vasco del Voluntariado, como órgano de carácter consultivo, estableciendo en sus artículos 15 y 16 sus funciones y composición.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, oí-

den konsulta-organoei entzunda eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko otsailaren 18an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Xedea.

Dekretu honen helburua da Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua arautza, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian agindutakoa betez.

**2. artikulua.**— Lehendakaritza.

1.— Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko Lehendakaritzari eskumen hauek izendatu zaizkio:

- a) Kontseiluaren ordezkaria izatea;
- b) Kontseiluaren egintzak zuzentzea;
- c) Kontseiluko bilkurak deitu eta horietan mahai-buru izatea, horiek zuen gobernatzen behar diren jarrabide orokorrak prestatzea eta eztabaideak moderatzea;
- d) Kontseiluko bilkuren gai-zerrenda prestatzea;
- e) bilkuretako aktak eta egiaztagiriak sinaduraz oniritzea;
- f) behar izanez gero, erabakiak bidali eta argitara daitzela agintzea eta bete daitezela xedatzea; eta
- g) legeetan, dekretu honetan eta oro har, dekretu honen beste organo batzuei izendatzen ez dizkien beste egiteko guztiak.

2.— Lehendakaritzak lehendakariordeari eskuordetu diezazkioke egitekoak.

**3. artikulua.**— Lehendakariordetza.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko lehendakario-deak lehendakaria ordezkatuko du hori kanpoan edo gaixorik dagoenean nahiz kargua hutsik dagoenean.

**4. artikulua.**— Idazkaritza.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari eskumen hauek izendatu zaizkio:

- a) bai kontseiluko kideek bai hirugarren batzuek Kontseiluan aurkeztu nahi dituzten gai, txosten, proposamen edo agiriak hartzea, antolatzea eta bideratzeko prestatzea, Kontseiluak azter ditzan hori izango baita erregerlamenduzko bidea, eta dagokien izapideak egitea guztiei;
- b) Kontseiluko kideen esku uztea gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko agiri guztiak, azter ditzaten;
- c) Kontseiluak duen edo sortzen duen informazioa dagokien pertsonei edo instantzieta bideratzea;
- d) osokoaren bileretako aktak egitea eta hartzen diren erabakieie bide ematea;

dos los órganos consultivos interesados y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de febrero de 2003.

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Objeto.

El objeto del presente Decreto es regular el funcionamiento del Consejo Vasco del Voluntariado, en desarrollo de la Disposición Adicional Tercera de Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

**Artículo 2.**— De la Presidencia

1.— La Presidencia del Consejo Vasco del Voluntariado tiene atribuidas las siguientes competencias:

- a) ostentar la representación del Consejo;
- b) dirigir las actuaciones del Consejo;
- c) convocar y presidir las sesiones del Consejo, elaborar las directrices generales para el buen gobierno de las mismas y moderar el desarrollo de los debates;
- d) formular el orden del día de las sesiones del Consejo;
- e) dar el visto bueno con su firma a las Actas de las sesiones y a las certificaciones;
- f) ordenar, en su caso, la remisión y publicación de los acuerdos y disponer su cumplimiento, y
- g) cuantas otras funciones se le otorgue en la Ley, en el presente Decreto y, en general, todas las que no se hallen atribuidas por este Decreto a otros órganos.

2.— La Presidencia podrá delegar sus funciones en el Vicepresidente o la Vicepresidenta.

**Artículo 3.**— De la Vicepresidencia

El Vicepresidente o la Vicepresidenta del Consejo Vasco del Voluntariado suplirá al Presidente o la Presidenta en los casos de vacante, enfermedad o ausencia.

**Artículo 4.**— De la Secretaría

El Secretario o Secretaria del Consejo Vasco del Voluntariado tiene atribuidas las siguientes competencias:

- a) la recepción, ordenación y preparación del despatcho de todos los asuntos, informes, propuestas o documentos que se deseé presentar al Consejo, tanto por sus miembros como por terceras personas, siendo éste el cauce reglamentario para su tratamiento por el Consejo, y dar a todos ellos la tramitación que proceda;
- b) mantener a disposición de los miembros del Consejo para su examen, cuantos documentos se refieran a los asuntos incluidos en el orden del día;
- c) canalizar hacia las personas o instancias que proceda, la información que origine o de que disponga el Consejo;
- d) levantar actas de las sesiones del Pleno y dar curso correspondiente a los acuerdos que se adopten;

e) fede-emaile izatea, lehendakariaren oniritziaz, eta Kontseiluak hartutako erabaki eta akten egiaztagiriaak egitea; behar denean, egiaztagiria akta onartu aurrekoa dela adierazi beharko da espreski. Bere esku utzitako agiri, irizpen eta boto partikularren egiaztagiriaak ere egingo ditu, lehendakariak oniritzita;

f) bere menpe dagoen artxiboa eta expedienteak antolatu eta zaintza, bai eta agirien sarrera eta irteeren erregistroa ere, eta bere organoen eta horiek kideen esku uztea, hala eskatzen zaionean;

g) Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egin beharreko urteko memoria, Kontseiluaren egintzak azalduko dituena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoerari buruzko urteko txostena prestatzeko behar diren datu guztiak ematea; eta

h) Lehendakaritzak uzten dizkion kudeaketa eta koordinazio lanak.

**5. artikulua.**— Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren bilerak.

1.— Boluntariotzaren Euskal Kontseilua lehendakariak deitura batuko da, gutxienez seihilean behin, eta Lehendakaritzak egokitzat jotzen duen guztieta edo kideen herenak eskatzen duenean. Deialdiarekin batera gai-zerrenda jarriko da.

2.— Organoa behar bezala eratzeko, batzarrak egiteko, eztabaidetarako eta erabakiak hartzeko, lehendakariak, idazkariak edo horien ordezkoek eta kideen erdiak egon beharko dute.

Quorumik ez bada, kontseilua bigarren deialdian batuko da, lehengorako jarritako ordua baino ordurako geroago, baldin eta hitza eta bota duten kideen herena baldin badago eta lehendakaria, idazkaria edo ordezkoak badaude.

**6. artikulua.**— Lantaldeak.

1.— Kontseiluaren iritzipean uzten diren gai zehatzak aztertzeko, lantalde iraunkorrak edo espezifikoak sor daitezke, Kontseiluak berak gehiengo soilez erabakita.

2.— Talde horiek bokalek osatuko dituzte.

3.— Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 16.3 artikuluak aipatzen dituen pertsonak izenda ditzake Lehendakaritzak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak proposatuta.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren gain uzten da Boluntariotzaren Euskal Plana prestatzea. Kontseiluak,

e) actuar de fedatario o fedataria, con el visto bueno del Presidente o de la Presidenta, certificando las actas y los acuerdos adoptados por el Consejo, haciendo constar expresamente, en su caso, que la certificación es anterior a la aprobación del acta correspondiente. También expedirá certificaciones, con el visto bueno de la Presidencia, de los dictámenes, votos particulares y otros documentos confiados a su custodia;

f) organizar y custodiar los expedientes y el archivo a su cargo, así como el registro de entrada y salida de documentos, poniéndolos a disposición de sus órganos y miembros cuando le sea requerida;

g) facilitar todos los datos que sean oportunos para la elaboración por el Consejo Vasco del Voluntariado de la memoria anual explicativa de las actividades del Consejo y del informe anual sobre el estado del voluntariado en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y

h) cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la Presidencia.

**Artículo 5.**— Reuniones del Consejo Vasco del Voluntariado

1.— El Consejo Vasco del Voluntariado se reunirá previa convocatoria del Presidente o de la Presidenta al menos una vez cada semestre y siempre que la Presidencia lo estime conveniente o lo solicite al menos un tercio de sus miembros. A la convocatoria de las reuniones se acompañará el orden del día.

2.— Para la válida constitución del órgano, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la presencia del Presidente o de la Presidenta y del Secretario o de la Secretaria o en su caso, de quienes les suplan y la de la mitad al menos, de los miembros del Consejo.

Si no existiera quórum, el Consejo se constituirá, en segunda convocatoria media hora después de la señalada para la primera, siempre que concurran al menos la tercera parte de sus miembros con voz y voto entre los que deberá contarse el Presidente o la Presidenta y el Secretario o la Secretaria o, en su caso, la de quienes les suplan.

**Artículo 6.**— Grupos de trabajo.

1.— Por acuerdo del propio Consejo, en régimen de mayoría simple, podrán constituirse grupos de trabajo permanentes o específicos, para el estudio de temas concretos, que se presenten a consideración de éste.

2.— Estos grupos estarán integrados por vocales.

3.— A propuesta del Consejo Vasco del Voluntariado, la Presidencia podrá designar las personas a que se refiere el artículo 16.3 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

Se encomienda al Consejo Vasco del Voluntariado la elaboración del Plan Vasco del Voluntariado, quién lo

bestalde, dagokion sailera bidaliko du plana, Jaurlari-tzaren Kontseiluak onar dezan. Halaber, planaren segimenduan eta ebaluazioan parte hartuko du eta planaren helburu eta ildo estrategikoen garapenari eta gauzatzeari buruzko txosten eta proposamenak egingo ditu.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan boluntariotzako erakundeek edukiko duten ordezketza aukeratzeko sistema.

Boluntariotzaren Euskal Plana onartu ondoren eta boluntariotzaren antolakuntzen benetako dimensioak ezagututa, sei hileko epean, Boluntarioei buruzko euskal legearen 16. artikuluko 1. punto c) letran aipatzen den partaidetza-sistema proposatuko dio Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak dagokion sailari, Jaurlari-tzaren Kontseiluak onar dezan.

**Bigarrena.**— Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko otsailaren 18an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,  
JAVIER MADRAZO LAVIN.

#### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

#### Zk-1207

41/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa, angularen arrantzari buruzkoa.

Kontseiluaren abenduaren 20ko 3760/92 (EE) Erregelamenduak, Europako Batasunarentzako arrantza eta akuikultura araubidea ezarri du, eta Europako Batasuneko arrantza-politikaren helburu nagusia finkatu, alegia, itsas-baliabideak babestu eta zaintza, eta horien ustiapen arrazoizkoa eta zentzuduna antolatzea, oinarri jasangarri baten gainean, sektorearentzako baldintza ekonomiko egokietan, itsas-ekosisteman izango duen eragina gogoan hartuta, eta ekoizleen eta kontsumitzaleen beharrizanak bereziki kontuan izanda.

Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 10. paragrafoan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkide-

elevará al Departamento competente a los efectos de su aprobación por el Consejo de Gobierno. Asimismo participará en el seguimiento y evaluación del Plan, y emitirá informes y propuestas sobre el desarrollo y ejecución de las líneas estratégicas y objetivos del Plan.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Sistema de elección de la representación de las Organizaciones del Voluntariado en el Consejo Vasco del Voluntariado.

Una vez aprobado el Plan Vasco del Voluntariado, y conocidas las dimensiones reales de las organizaciones del voluntariado, en el plazo de seis meses, el Consejo Vasco del Voluntariado propondrá al Departamento competente, a los efectos de su aprobación por el Consejo de Gobierno, el sistema participativo al que se refiere artículo 16, punto 1 letra c), párrafo cuarto, de la Ley vasca del voluntariado.

**Segunda.**— Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2003.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,  
JAVIER MADRAZO LAVIN.

#### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

#### Nº-1207

DECRETO 41/2003, de 18 de febrero, de pesca de la angula.

El Reglamento (CEE) 3760/92, del Consejo, de 20 de diciembre, por el que se establece un régimen comunitario de la pesca y la acuicultura, fija como objetivo general de la Política Pesquera Común, la protección y conservación de los recursos marinos y la organización, sobre una base sostenible, de la explotación racional y responsable de los mismos, en condiciones económicas apropiadas para el sector, teniendo en cuenta sus repercusiones en el ecosistema marino y tomando en consideración, en particular, tanto las necesidades de los productores como las de los consumidores.

De conformidad con lo establecido en el Estatuto de Autonomía en su artículo 10, apartado 10, la Comuni-